

Plataformaren aldizkaria



Maiatzaren 29an
LURRAREKIKO
KONPROMISOA
Herria mug!



Zuhaitz bat
dorreko,
taupada bat
volteko....



REE eta Forestalia: eragin nagusien mapa

HERRIAREN BORONDATEA ERRESPESTATUKO DUEN BIDE DEMOKRATIKOA IREKI

REE SA enpresak goi tentsioko linearen lehen proiektua aurkeztu eta **hamahiru urte pasatu direnean**, atzera berriz proiektu hori eta baita Forestalia enpresaren beste proiektu baten tramiteak egin dira. Goi-tentsioko linea bat da Zaragozatik Altsasura doana lau zirkuiturekin, horietako bi Gatikara eta beste bi Gasteizera abiatzen direnak.

Bi proiektuak batuta, **REEko 92 kilometroetan** eta **Forestaliako 244etan, 80 metro altu** diren 800 dorre metaliko izango genituzke eta horietatik erdiak baino gehiago, **431, Barasoain eta Gabiria artean**, paraleloan, pasatuko lirake, Nafarroa ekialdetik mendebaldera zeharkatuz Gipuzkoako Goierriaraino. Zeharkatzen dituzten eskualdeen interes eta premiekin ikustekorik ez duten egitasmoak dira.

Hamahiru urte horietan, proiektuak eragina duen udalerrietako biztanlegoaren jarrera aurkakoa izan da argi eta garbi. 2010eko azaroaren 12ko BOEk dagoeneko, lehen proiektua erretiratuko zuela iragarri zuen, **“ingurumenarekiko eraginagatik eta gizartearen aurkako jarreragatik”**. Gauza bera gertatu zen bigarren saiakerarekin ere hainbat faktorerengatik: **172 alkateren** babesaren izan zuten herri-erantzun sendoa, udal eta kontzejuetan onartutako **216 mozioak**, mobilizazio ugari, itzalaldi masiboa, erroldaren % 63ko partaidetzarekin % 99ak proiektuaren aurka adierazitako herri-kontsultaren emaitza eta aurkeztutako **14.000 alegazioak**.

Hamahiru urte, ondorengo gobernuek proiektua justifikatzeko erabili dituzten argudio faltsuak banan-banan desagiten. Hamahiru urteko **lan bateratua, gardentasunean, elkartasunean eta** jardun zein irizpide **independentzian** oinarriturik, gure herrietan duintasunez bizitzeko eskubidearen defentsan, gure ama lurraren defentsan.

Hamahiru urte gure etorkizuna antolatzeko eskubidearen alde borrokan multinazional elektrikoen interes espekulatiboen, ate birakarien eta gu ordezkatzeko gaituztela dioten erakundearen aurrean. Eta azken hauei, hain zuzen ere, luzatzen diegu galdera: **zer gehiago egin behar da herriaren gehiengoaren borondatea errespetatzeko?**

Ez gatoz esku hutsik. REEren 2019ko 400 kV-ko linea berri bat eraiki eta Orcoyen eta Itxasoren artean zeuden 220 kV-ko bi lineak indartzeko saiakera zela eta, hura desagiteko konpromisoa lortu genuen, haren eragina onartezina zelako. Nola uler daiteke oraingo **joko-arau aldaketa partidaren erdian** eta Espainiako gobernuak paraleloan doazen 400 kV-ko bi lerro izapidetzen uztea?

Erantzunik gabeko galdera gehiegi ditugu:

Uztargarriak al dira aldarrikatzen duten **ingurumenaren** defentsa eta 100 km baino gutxiagoko bidean 400 dorre metaliko baino gehiago eraiki?

Onargarria al da hurbilen dauden herriekiko **500 metroko** distantzia eta horrek gure **osasunean** dituen ondorioak ez errespetatzea?

Onargarria al da bi proiektuen ondorio metatuak ez aztertu izana, afekzioen metaketak **eragina** biderkatu eta **kritiko** bihurtzen duenean?

Bateraezina, onartezina eta zentzugabekeria **jasanezina** da REEren Itxaso-Castejón/Muruarte lineari Forestaliako Kyoko eta UME lineak gehitzea, eta egoera horrek behartu beharko lituzke bai Nafarroako Foru Gobernuak bai Euskal Gobernu autonomikoa proiektuak eragindako udalerriekin bat egitera, zalantzarik gabe aipatu proiektuaren kontra agertuz.

Lurraldean lehen gaueko eskubidea moduko bat berrezartzeko ahaleginaren aurrean gaude, oraingoan energetikoa, soingaineko berde berriztagarria eta guzti, putre funtsen onurarako espiral espekulatibo berri baten emaitza dena.



Kable hauek gureak dira, besteak bortxaz ezarritakoak

Ehunka dorre – Hamaika taupada lurrarekin bat


LURKIDE konpromisoa

Gure lurraren azalean iltzatu nahi duten dorre metaliko bakoitzeko, gure eskualdeko talde batek espazio hori defendatzeko konpromisoa hartzen du: maiatzaren 29an, igandearekin, goizeko 11etan, aukeratutako tokira joanda, proiektuari buruzko informazioa norberaren inguruan emanaz eta Plataformaren esparruan elkarren artean erabakitzen diren ekintzetan parte hartuz. Herri bizien aldeko eragile aktibo bihurtu.



Bitan geldiarazi badugu, hirutan ere egin dezakegu

Milaka taupada batera ehunka dorreren altzairua jotzen, bihotzen zanpantzarra kontzientziak pizten, partekatutako ametsen burrunba isila, aurrekoengandik jasotako herentzia ondorengo belaunaldietara helarazteko hartutako zorraz jabetzen diren pertsonak. Etorkizuneko proiektuak, hauek bai, energiaz beteak.



Lurkideen Batzarra

**Maiatzaren 14a 12:00etan
Etxarri Aranazko kultur etxean**

Talde guztien bilera konpromisoa sinatzeko eta maiatzaren 29ko ekitaldia antolatzeko (Haritz kimu bat banatzea dorre bakoitzean landatzeko)

MAIATZAREN 29ko EGITARUA Etxarri Aranatz

11:00 Talde bakoitza bere dorrera eta argazki bat egin
12:00 Elkarretaratzea Etxarri Aranazko plazan
12:30 Ekitaldi nagusia, giza-puzle erraldoia
13:00 Hortik aurrera, kale animazioa
15:00 Herri bazkaria (izena eman behar da)
17:00 Argazki guztiekin eginiko muntaiaren proiektzioa
Gero... festa giroa iluntzera arte



Hamahiru urte hauetan elkarrekin zerbaít ikasi dugu, hau da, ez bagara mugitzen ez da ezer mugitzen, inor ez da etorriko guk defendatzen ez dakiguna defendatzera. □



GOI-TENTSIOKO LINEEN IBILBIDEA ERAGIN NAGUSIAK

TRAZADO LÍNEAS ALTA TENSIÓN PRINCIPALES IMPACTOS

Paisaiari, 80 metroko altuera duten 400 dorre baino gehiagorekin.
Al paisaje, con más de 400 torretas de hasta 80 metros de altura.

A la **economía**, al sector primario; por servidumbres y pérdida del valor de los terrenos.
Ekonomiari, lehen sektoreari; bidezortasunengatik eta lurren balioaren galeragatik.

Lurraldearen antolaketari, udal plangintzarekin bateraezina izateagatik. Gure herrien etorkizunari.

A la **ordenación del territorio** por incompatibilidad con el planeamiento municipal. Al futuro de nuestros pueblos.



A la Red Natura 2000, a las aves protegidas, a la vegetación...
Natur 2000 Sareari, hegazi babestuei, landarediari,....

Osasunari eremu elektromagnetikoengatik, 500 metro baino gutxiagotara dauden herriak baitaude.
A la **salud** por campos electromagnéticos, con pueblos a menos de 500 metros.

Ez dira beharrezkoak gure garapenerako.
No son necesarias para nuestro desarrollo.

Al **patrimonio cultural**, al turismo, una línea roja de "prohibido el paso".
Kultur ondareari, turismoari, "ezin pasa daiteke" adierazten duen marra gorria.

A la **democracia**, por no respetar la voluntad popular mayoritaria.
Demokraziari, herritar gehien borondatea ez errespetatzeagatik.

Udalak eta aurreikusitako dorre kopurua
Ayuntamientos y nº de torretas previstas

REE + Forestalia

Barasoain 2 , Artajona 2 + 11. Añorbe 9 + 12, Eneriz 4 + 6, Adios 3 + 3, Muruzabal 4 + 5, Uterga 8 + 6, Legarda 2 + 6, Zizur 15 + 19, Oltza 11 + 17, Iza 12 + 18, Arakil 22 + 29, Irañeta 3 + 5, Uhartea-Arakil 10 + 12, Arruazu 2 + 2, Lakuntza 3 + 2, Arbizu 4 + 8, Ergoiena 6, Etxarri Aranatz 7 + 14, Bakaiku 7 + 4, Iturmendi 3 + 5, Urdiain 4 + 6, Alsasua 10 + 9, Idiazabal 6 + 26, Segura 10, Zerain 4, Mutiloa 3, Gabiria 12 + 9, Parzonería 4 + 6.



— REE
— Forestalia
— REE 220 kV